

# Irakasleen egoera Gipuzkoan Francoren garaian

*Hilario Murua Cartón*

hilario.murua@ehu.es

Hezkuntza Ikerkuntzako eta Diagnosi Metodoen Saila  
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea

**GAKO HITZAK:** Andereño-maisuak. Irakasleen jatorria. Irakasleen ereduak. Baldintza laboralak. Hizkuntza.

## 1. SARRERA

Dakigunez, 1936ko uztailaren 18an Estatu espainiarrean Gerra Zibila hasi zen eta egun hartatik 1982ra arte Hezkuntzaren legedian bi lege besterik ez du izan, 1945ean sortutakoa, «Lehenengo Hezkuntzari buruzko Legea», eta 1970ean sortutakoa, «Hezkuntza Orokorreko Legea». Bi lege horien artean erreforma txiki bat egin zuten 1965ean; alabaina, horrek ez zituen «nazional-katolizismoaren» oinarriak aldatu.


Lege horien ondorioek eragina izen zuen Gipuzkoako irakasleen egoeran, eta izugarrizko aldaketa sortu zuen Lehenengo Hezkuntzako irakasleengan. Artikulu honetan zer gertatu zen azaldu nahi dugu, eta horretarako bi atal aurkeztuko ditugu: alde batetik Gipuzkoako egoera orokorra aztertuko dugu, hau da, esparru demografiko, ekonomiko eta kulturala ikusiko ditugu, eta bestetik, zen irakasleen egoera nolakoa izan aztertuko dugu, hots, zergatik desagertu ziren maisuak eta nolatan hartu zituzten emakumeek haien lekuak, zergatik desagertu ziren irakasle euskaldunak eta haien ordezkapenak beste probintzietako irakasleek egin zituzten, edo zer dela eta ez zuten irakasle izan nahi Gipuzkoako gazteek. Bi atal horik ikusita atera ditugun emaitzak aurkeztu, eta ondoren gure ondorioak azalduko ditugu.

## 2. GIPUZKOAKO EGOERA, ORO HAR

### 2.1. Demografia

1936an altxamendu militarra gertatu zenean, Gipuzkoak 330.000 biztanle besterik ez zeukan; aldiz, 1975ean Franco hil zenean, kopurua bikoiztuta zegoen eta ia 650.000 pertsona bizi ziren probintzian. Hazkundera XIX. mendeko bukaeran hasi zen bi faktoreri esker: «alde batetik medikuntzaren aurrerapenak eragin handia izan zuten, eta, bestetik, haurren heriotza-tasak izugarritzko jaitsiera ziren»<sup>1</sup>. Baina XX. mendean faktore horiei beste bi faktore berri gehitu zitzaizkien: etorkin asko hurbildu zen Gipuzkoara lan bila —eta haiekin beren familiak—, eta egoera horri lotuta beste fenomeno bat sortu zen, alegia, «baby boom» deiturikoa.

Bi garaitan gertatu zen immigrazioa: lehenengoa 50.eko hamarkadan eta bigarrena 60.eko hamarkadan. Bitxia bada ere, lehen etorriak Euskal Herritik gertu bizi ziren, Burgos, Errioxa eta Aragoitik zetozen, baita Euskal Herritik beretik ere, Araba eta Nafarroatik hain zuzen ere. Bestek, 60. hamarkadan iritsi zirenak, Extremaduratik eta Galiziatik etorri ziren. Beste datu bat gehiago emango dugu: «1950. urtetik 1970.era gure probintzira 116.000 etorkin iritsi ziren»<sup>2</sup>. Gainera, gehienak gazteak ziren, oso azkar aurkitu zuten lana eta ezkondu ondoren familia ugariak sortu zituzten, horrexegatik deitu izan zaio «baby boom» fenomeno horri.



Iturria: Arrieta, L.; Barandiaran, M.: *Diputación y Modernización*.

1. grafikoa  
Gipuzkoako biztanle-tasa, 1940/1975


<sup>1</sup> Arrieta, L.; Barandiarán, M. (2003): *Diputación y Modernización: Gipuzkoa 1940-1975*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 88 orr.

<sup>2</sup> *Ibidem*, 89 orr.

## 2.2. Ekonomia

Beste ikuspuntu batetik, ekonomikotik, esan behar dugu per capita errentariri dagokionez Estatuko lehenengo postuan izan da Gipuzkoa urte askotan, baina egoera horrek kontraesan bat ezkuta lezake. Gipuzkoako eta Bizkaiko biztanleek Francoren militarrei aurre egiteagatik «probintzia traidoretzat» jo zituen. Izan ere, gure probintziko enpresari batzuek Francoren armadari dirua barra-barra eman zioten. Dakigunez, 300 milioi pezeta gudarako materiala erosteko eta ia beste 200 miloi intendentziarako, hau da, 500 miloi pezeta, baina ez ziren alferrik izan<sup>3</sup>. Urte batzuk beranduago Francok itzuli egin zituen miloi horiek eta, Bizkaikoak bezala, Gipuzkoako lantegiak bonbardatu ez zituenez, probintziko ekonomia berehala suspertu zen.

Edozein kasutan, Gerra Zibilaren ondorengo lehen urteak oso latzak izan ziren probintziarako. Arabak eta Bizkaiak bezala, Kontzertu Ekonomikoa gozaten zuen arren, 1937ko uztailaren 20an, Bilbo erori zenean, erregimen berriak bertan behera utzi zuen Kontzertu Ekonomikoa, eta probintzia euskaldunek lehenengo ondorio latzak pairatu zituzten «*Uztailaren batetik zerga guztien kudeaketa eta diru bilketa beste herrietan bezala egingo da*»<sup>4</sup>.



*Iturria:* Gipuzkoako Foru Aldundia.


2. grafikoa  
**Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontuak, 1940/1974**  
(milaka pezetatan)

<sup>3</sup> González Portilla, M (1998): «100 Años de Historia del País Vasco», in *Cuadernos de Extensión Universitaria*. Bilbo: EHU, 75-79 orr.

<sup>4</sup> García de Cortázar, F.; Montero, M. (1985): *Historia Contemporánea del País Vasco*. Donostia: Txertoa, 173 orr.

### 2.3. Kultura

Kultur arloan gertatu zena izugarria izan zen. Ia-ia ez zen aurrekontu-partidarik, eta «Heziketa Publikoa» bera ere atal horretaren baitan zegoen sartuta. Hurrengo grafikoak begiratze hutsak Gipuzkoako Aldundiak kulturari eta heziketari ematen zien garrantzia erakusten du:



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

### 3. grafikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontuak, 1940/1950

Ikusten dugunez, 1940 urtean Heziketarako aurrekontua % 1,4koa zen, 160.000 pezeta gutxi gora-behera. 1950 urtean datu hau % 2,6ra igo zen, baina 60. hamarkadan 0,28ra jaitsi %, 70.ekoan aurrekontuen % 0,35 lortu zuen, eta Franco hil zen urtean % 1,35ekoa zen. Suposa dezakegu nolakoa izan zen hezkuntzaren egoera frankismoren garai osoan eta horretarako adibide bat jarriko dugu: 1946an Eskoriatza<sup>5</sup> herriko biztanleek eskola berri bat eraiki nahi zuten, baina ez zuten ez bitartekorik, ez dirurik. Proposamen hori gauzatzeko herriko apaizarengana joan ziren, zeinak elizatea utzi zien, baina konponketa guztiak biztanleek egin behar izan zituzten; hori bai, hezkuntza agintarietara gastuak onartu zituzten.

Nahiz eta II. Errepublikaren garaian 1937ra arte Landa Heziketarako plangintza bat zegoen<sup>6</sup>, agintari berriek plangintza hura desagerrarazi

<sup>5</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiko Akta, 1946ko urriaren 24koa.

<sup>6</sup> Garmendia Larrañaga, J. (2004): *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los Ayuntamientos, 1900-1950*. Donostia, EHU. 281 orr.

egin zuten eta 1953ra arte ez daukagu plangintza horri buruzko berririk. Bitartean, Sustapen Batzordea Galiziara joan zen jakiteko nolakoa zen probintzia haietako egoera, baina itzultzean ez zuten proposamen berri bakar bat ere egin. Azkenean, Sustapen Batzordea desagertu egin zen eta beste batzorde berri bat sortu zuten, Hezkuntza, Kirola eta Turismo Batzordea. Honek baimena eskatu zion Foru Aldundiari 50 eskola berri eraikitzeko, irakaslearentzako etxebizitzadunak, eta horrela egin zen. Horretarako Foru Aldundiak kostuaren % 50 jarriko zuen eta Udaletxeek orubea eta beste % 50<sup>7</sup>. 1953 urtea bukatzen ari zenean lege berri bat sortu zuten, Eskola Eraikuntzei buruzko Legea, hain zuzen, zeinari esker Gipuzkoako eskolek diru-laguntza gehiago jaso ahal izan zuten; arazoaren irtenbidea martxan zen.

### 3. IRAKASLEEN EGOERA

Edozein kasutan, irakaskuntzaren egoera oso larria zen gerra bukatu zenetik, Gipuzkoak maisu eta andereño asko galdu zituelako eta ez zegoe-lako irakasle nahikorik probintziako gela guztiez arduratzeko. Egoera horrek bazeukan errudunik: «Batzorde araztaileak»<sup>8</sup>. Gerra Zibila hasi zenetik Batzorde Araztaile horiek ondo bete zuten beren egitekoa, alegia, irakasle guztien curriculumak arretaz begiratu, eta Batzordearen iritziaren arabera-ko zigorra ezartzea. Irakasle batzuk hil egin zituzten, beste batzuk erbestera joan ziren, beste hainbatek lana galdu zuten edo atzerrira ihes egin behar izan zuten, gutxienek Gipuzkoan jarraitu zuten lan egiten. Ondorioz, gure probintziak maisu eta andereñoak galdu zituen eta Gipuzkoako eskolak hutsik geratu ziren<sup>9</sup>.

Arazo horri irtenbidea emateko neurriak hartu zituzten agintari frankistek, esate baterako, apaizek klase eman zezaketen hierarkiako maila goreneko baimen bakar batekin, nahiz eta titulurik ez eduki, baita militar zaurituek ere —elbarri— batxilergoko titulurik bazuten, baina, hala eta guztiz ere, irakasleen kopurua ez zen gela guztiak betetzeko adina. Hezkuntza arduradunek arazoak konponbiderik ez zeukala ikusita, beste probintzia batzuetako irakasleak ekarri zituzten, batez ere Errioxa, Valladolid, Zaragoza eta Burgosetik, baina baita Nafarroatik ere. Alabaina, irakasle berri horien etorrera txatal hutsa izan zen, gero ikusiko dugunez, euskaraz ez zekitelako.

---

<sup>7</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiko Akta, 1953ko abenduaren 1ekoa.

<sup>8</sup> Morente Valero, F. (1997): *La Depuración del Magisterio Nacional, 1936-1943. La Escuela y el Estado Nuevo*. Valladolid. Ámbito.

<sup>9</sup> Ostolaza, M (1996). *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo*. Donostia. Ibaeta. 145-146 orr.

### 3.1. Irakasleen ereduak

Francok gerra irabazi zuenetik hiru Lege sortu ziren Heziketarako, «1945ko uztailaren 17ko Legea, Lehen Hezkuntzari buruzkoa», «1965eko abenduaren 21eko legea, Lehen Hezkuntzaren Erreformari buruzkoa» eta «1970eko abuztuaren 4ko Legea, edo Hezkuntzaren Lege Orokorra eta Hezkuntzaren Erreforma Finantzatzekoa». Bitartean, 1947ko urriaren 24an Dekretu berri bat kaleratu zen, «Maisutzaren Estatutua», eta hiru urte beranduago, 1950eko uztailaren 7an, beste araudi bat, «Irakasle eskolei buruzko Araudia» izenekoa. Bost araudi horiek finkatu zituzten irakasleen ereduak.

Hasteko, eredu gehiegi izan zirela esan behar dugu, baina urteek aurrera egin ahala, ereduak murrizten joan ziren eta azken Legearekin lau eredu geratu ziren. Ikus dezagun nolakoak ziren ereduok. 1940/41 ikasturtetik 1957/58 ikasturtera irakasle «Jabeak», «Bitartekoak», «Ordezkoak (*Sustitutos*)» aurki ditzakegu eta beste multzo batean, «Irakasleriaren beste ereduak» sartu genitzake, hots, «Herritar irakasleak, Bolanteak, Ordezkoak (*Suplentes*), Supernumerarioak eta abar.» Nola gizona zikoengan, hala emakumeengan, talde ugariena Jabeena zen.

Bigarren garaian, 1958/59 eta 1963/64 ikasturteen artean, ikusitako eredu guztiak desagertu, eta beste eredu batzuk sortu zituzten, alegia, *Magisterio Nacionalekoak* zirenak, *Magisterio Nacionaleko ez zirenak*, Erlijio Institutuetakoak, eta Klero Sekularrenak zirenak. Garai horretan ere gizon eta emakume gehienak lehenengo taldean ziren.

Arestian aipatu bezala, 1965 urtean erreforma bat egin zitzaion 1945eko Legeari, beste bi eredu berri sortuaz, hau da, «Gradudun Maisu eta Zuzendariak», eta «Gradurik gabeko Zuzendariak.» Aurreko aldietan bezala, dudarik gabe lehenengo taldea da nagusi. Bukatzeko, 1970ean Lege berria indarrean sartu zenean hiru talde sortu zituzten, «Lehenengo Hezkuntza edo OHOk irakasleak», «Hezkuntza Berezia» eta «Irakaskuntzako beste langileak», eta berriro lehenengo eredu da nagusi bi generoetan.

Baina Francoren garaian irakasleak ez ziren eredu hauetan sailkatzen bakarrik, baita zazpi mailatan ere, 1etik 7rainoko hurrenkeran. Normalean, lanpostuan denbora gehien zeramatenek betetzen zituzten lehenengo mailak. Aitzitik, irakaskuntzara iritsi berriak azken mailatan zeuden. Antzinatean ez ezik, desberdintasun nagusia soldatan ere nabaritzen zen, nahiz eta kasu horretan gizon eta emakumeen artean alderik ez zen, denek soldata bera zeukatelako. Beste datu bat emango dugu lanpostuan zeramatzen denboraren inguruan. Baieztatu dugun bezala, lanpostuan denbora gehiago zeramatena zaharragoak ziren, batzuetan ia 70 urte zituzten, irakasleak adin horrekin erretiratzeko zirelako. Hori ere arazo bat zen irakaskuntzarako, adinean oso aurrera joanak zirelako, eta nekatuta, aspertuta eta gogorik gabe iristen zirelako erretirora.

Hauexek izan ziren irakasleen baldintzak Francoren garaian. Frankismoaren ezinbesteko kidea izan behar zen, lanbidean sartzeko eskakizunak oso errazak ziren, edozein sar zitekeen, egoera ekonomikoa, bai soldatan bai egonaldietan bai etxebizitzetan gero eta larriagoa zen, lan-baldintzak ez ziren erakargarriak, eredu asko eta maila gehiegi zirelako, baita euskaraz ez zekitelako ere, baina batez ere, lehenengo baldintzari lotuta, frankismoaren aldeko beren jarreragatik.

### 3.2. Irakasleen lan-baldintzak

Beste probintzietatik zetozen irakasleentzat euskara arazo zela esan dugu, baina bakarra. Adibidez, oso soldata eskasa eskuratzen zuten, edozein funtzionariook, poliziak edo guardia zibilek haiek baino heren bat gehiago irabazten zuen<sup>10</sup>. Bestalde, funtzionario horiek, bai irakasleek, baita guardia zibilek, ikasketarik eduki ez arren etxebizitzarako eskubidea zeukaten. Guardia zibilek eskubide horri probetxu ateratzen zioten artean, irakasleek ezin izaten zuten etxebizitza duinik eskuratu; batzuetan eskola berean ezinezko baldintzetan bizi ziren, baina gehienetan herrietan zehar pisuren bat aurkitu behar izaten zuten, Gipuzkoako salmenta edo alokairuko prezioak ahaztu gabe. Horren inguruan beste adibide bat jarriko dugu: 60.eko hamarkadan gure probintzian alokairu batek 2.500 pezeta balio zuen, baina irakasleei 300 besterik ez zieten ematen kontzeptu horretarako<sup>11</sup>.

Ikusten dugunez, irakasleen egoerak ez zeukan etorkizun erakargaririk; aitzitik, beltz samarra zen, eta putzu hartatik ateratzeko, maisu eta andereñoen ideia jakin bat bururatu zitzairen, egonaldiak antolatzea alegia. Herri txikietan handiagoetan baino gehiago egiten ziren eta gauza honetara gauzatzen zituzten: eskolak bukatu ondoren, ikasleak (nahi zutenak, boluntarioak zirelako, baina azkenean denek joan behar izaten zuten) eskolan geratzen ziren ordu bat gehiago ikasteko, baina ordu hori ordaindu behar izaten zen. Jasotako dirua Ministerioaren eta irakasleen artean banatzen zuten, 10 pezeta Ministerioarentzat eta 40 pezeta irakasleentzat<sup>12</sup>. Garai hartan garbitzaile batek orduko 35 pezeta jasotzen zuen bere lanagatik. Ordea, egonaldi horiek ez zieten irakasleei hobekuntza ekonomikorik ekarri, eta irakasleak eskola amaitutakoan, negozio txikiez arduratzen ziren, adibidez, komertzio txikien edo etxebizitzaren administrazioaz eta abar. Hartara, ekonomiari dagokionez, lasaitua hartzen zuten, baina horrek guztiak ere bazuen alde txarrik: aktibitate horietan jarduteko denbora behar izaten zen. Hori zela eta, irakasleek ez zuten eskolak prestatzeko

---

<sup>10</sup> Agirre Elustondo, J. A. (1969): *Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros. Informe GAUR*. Madril. 120 orr.

<sup>11</sup> *Ibidem*, 116 orr.

<sup>12</sup> *Ibidem*, 116 orr.

behar beste denbora, eta horren ondorio pedagogikoak oso nabarmenak izan ohi ziren.

### 3.3. Hizkuntzaren arazoa

Baina nahiz eta arazo ekonomiko horiek larriak izan, ez ziren arazo bakarrik. Ekonomiaren ondoriozkoak baino larriagoak ziren eskolan bertan gertatuak, ikasle eta irakasleen —maisu-maistrak— artean. Alde batetik, Gipuzkoako herri askotan umeek ez zekiten gazteleraz, ezta irakasleek euskaraz ere... gatazka begi bistan zen. Egoera horri irtenbideren bat aurkitu asmoz, irakasleek «eraztunaren» metodoa<sup>13</sup> erabiltzen zuten, alegia, ikasleren batek eskola barruan euskaraz hitz egiten bazuen, irakasleak eraztuna jarriko zion. Ikasleak beste lagun bati euskaraz hizketan entzuten bazion, eraztuna pasatuko zion, eta horrela jarraituko zuten eskuz esku eguna bukatu arte. Momentu horretan eraztuna zeramanak zigorren bat jasoko zuten, adibidez eskola garbitu beharra, isun ekonomikoren bat, edo, askotan, jipoaia.

Ezin dugu ahaztu irakasleen zeregina, ez baitziren soilik maisu edo andereño; areago, frankismoko agintarien beharrak betetzen zituzten, frankismoren militante bihurtu ziren. Egia esan, arazketa prozesu batetik zetozen eta prozesatu ez zituztenak beren lanpostuetan jarraitu ahal izan zuten, baina besteak hil egin zituzten, erbestera joatera behartu, edo desterratu egin zituzten.

Bestalde, hizkuntza-jazarpena ez zen irakasleena soilik izan, Gipuzkoako Aldundiak ere parte hartu zuen jazarpen horretan. Aldundiko aktetan ez da euskarari buruzko berririk agertzen 1966ra arte. Urte horretan hezkuntzako sektore batzuek euskara berreskuratzeko ideia azaldu zuten Irakasle Eskolan, «*en evitación de que pudiera desaparecer uno de los idiomas más antiguos del mundo*»<sup>14</sup>.

Izan ere, eta euskaltzale ugariren lanari esker, euskara ez zen desagertu. Basurkok<sup>15</sup> esaten digun bezala «Ikastoletako Normalizazioa» 60.eko hamarkadako ikastoletako mugimendua sormen lanaren fruitua izan zen. Ikastolak hiru garai oso desberdin bizi izan zituen: 1943 eta 1960 artean «klandestinitate garaia,» 1960 eta 1976 artean «zabaltzeko eta legeztatzeko garaia,» eta 1976an «normalizazio juridiko eta publikoekiko parekatze garaia». Lehenengoan ikastolak ez zeuden onartuak, bigarrenean «*Libro de Escolaridad*» erabili behar izan zuten, eta hirugarrenean sistema desberdin izateari utzi, eta lokalak, irakasleak eta metodologia normalizatuko bidean jarri ziren.

---

<sup>13</sup> Lasa, J. I. (1968): *Sobre la Enseñanza Primaria en el País Vasco*. Donostia: Auñamendi. 29-30 orr.


<sup>14</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiko Akta, 1966ko maiatzaren 25ekoa.

<sup>15</sup> Basurko Motrico, F. (1989): «La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la Escuela Pública Vasca», in *Revista Interuniversitaria de Historia de la Educación* 8, 139 orr.



### 3.4. Irakasleen feminizazioa

Atal honen sarreran ia irakasle euskaldun guztiak desagertu zirela komentatu dugu, eta desagertzen horri lotuta beste fenomeno bat suertatu zen, hots, maisuak gelatetik desagertzen joan ziren eta erregimen berriak haien lanpostuetan emakumeak jarri zituen. Informazio hori 1933, 1946, 1960 eta 1975eko «Anuarios Estadísticos del Magisterio» argitalpenean jasotzen da. Ikus daitekeenez, lehenengo urtekaria II. Errepublikakoa da, baina oso ondo datorkigu konparaketa bat egiteko frankismoren lehenengo urtekariarekin.



*Iturria:* «Anuarios Estadísticos del Magisterio». Egileak sortua.

#### 4. grafikoa

#### Maisu eta andereñoen ehunekoak Gipuzkoan, 1933 eta 1975 artean

Errepublika garaian gizonen eta emakumeen arteko proportzioa oso parekatua zen bitartean, Franco boterera iristen denetik egoerak aldaketa nabarmena izan du, irakaskuntza emakumeen lan bihurtu arte. Izugarrizko aldaketa hori 1960an iritsi zen gorenera; momentu hartan maisu bakoitze-ko bi andereño zegoen. Beste datu batzuk azaldu behar ditugu: Errepublika garaian, 1933an, gure probintzian 180 irakasle zeuden —97 maisu eta 83 andereño—, baina bat-batean Francoren miraria sortzen da: nahiz eta irakasle asko hil, nahiz eta hamaika irakaslek erbestera joan behar izan, nahiz eta Gipuzkoan geratzen ziren irakasleak beste probintzia batzuetara bidali, gure probintziako irakasleen kopuruak gora egin zuen, eta 1946an 390 irakasle berri ditugu, hau da, 1933an baino 210 irakasle gehiago. Gure iritzi, datu hauek puztuak dira, erregimen berriaren irudi onerako. Edo-

zein kasutan, urte horien artean lanbidearen feminizazio prozesua sortu zen, hau da, 214 andereño eta 176 maisuk probintziako gelak bete zituzten. 1960ko urtekarian ikerketa eginez, baieztatu egiten da lanbidearen feminizazioa, urte horretan 577 irakasle ditugulako, 381 andereño eta 196 maisu. Bukatzeko, Franco hil zen urtean, 1975ean, aldea murriztu egin zen, eta irakasleen kopurua hazi egin zen arren, momentu hartan 1.310 irakasle ziren Gipuzkoan, emakume eta gizonen ehunekoak elkarrengana hurbilaziz: 537 maisu eta 773 andereño.


Egia esan, Gipuzkoako mutilek ez zuten ondo ikusten lanbide hau, gauza bera gertatzen zen Bizkaian. Alde batetik irakasle izateko «Mugimenduko Printzipioak» bete behar zituzten eta hori oztupo bat zen, eta bestalde, edozein lanbidetan diru gehiago irabazten zuten; beraz, ondorioa argi dago.

### 3.5. Irakasleen jatorria

Aurreko atalean irakasleen kopurua ikusi dugu; atal honetan, ordea, haien jaioterria azalduko dugu, eta horren bidez lanbidearen «gaztelaniartzea» berretsi. Gorago esan bezala, irakasleen arazketa prozesuak ondorio larriak eragin zizkien probintzia guztiei, baina batez ere Bizkaia eta Gipuzkoari, probintzia horietan euskara asko erabiltzen zelako, nagusiki herri txikietan. Ondoren grafiko batzuk erakutsiko ditugu emigrazio-immigrazio prozesuaz jabetzeko.


Lehen bezala 1933ko urtekaritik hasiko gara, baieztatzeko 97 maisutik 37 euskaldun zirela (20 gipuzkoar, 16 nafar eta beste bat bizkaitarra) eta 60 etorkin (14 errioxar, 13 Valladolideko, 11 burgostar, 5 Zaragozako eta 17 Estatuko beste probintzia batzuetakoak). 1946ko urtekoari dagokionez, honako datuak aurkitu ditugu: 176 maisuk egin zuten lan gure probintzian, 86 euskaldun (36 gipuzkoar, 26 nafar, 22 arabar eta 2 bizkaitar) eta beste 90 etorkin (10 Burgosetik eta Valladolidetik etorriak, 8 Errioxatik eta besteak, 62 arte, beste probintzia batzuetatik). Azken datuak, 1975ekoak, Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzatik jasoak dira eta hauexek dira: urte hartan 448 maisu genituen probintzian; 345 etorkinak ziren (54 Burgosetik, 49 Zamoratik, 32 Leonetik, 26 Salamancatik, 21 Valladolidetik, 19 Errioxatik, eta beste 144rak beste probintzia batzuetatik). Euskal Herrian jaiok 123 baino ez, 35 gipuzkoar, 46 nafar, 14 arabar eta 8 bizkaitar.

Ikus ditzagun emakumeen datuak. 1933 urteko emakumeei dagokienez, 83 andereñotik 50 euskaldunak ziren (26 gipuzkoar, 16 nafar, 3 arabar eta 5 bizkaitar) eta 33 etorkin (7 Valladolidekoak, 4 Burgosko eta Zaragozakoak, eta beste 15 beste probintzia batzuetakoak). 1946an emakumeen kasuan banaketa honako hau izan zen: 214 irakasle, 141 Euskal Herrian jaiok (89 Gipuzkoan, 37 Nafarroan, 9 Araban eta 6 Bizkaian) eta 73 Estatuan (13 Valladoliden, 10 Burgos eta Errioxan, eta besteak, 40 irakasle gehiago, beste probintzia batzuetan). 1975ean andereñoen kopurua 862ra iristen zen.



Iturria: «Anuarios Estadísticos del Magisterio» eta Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza. Egileak sortua.

5. grafikoa  
Gipuzkoako maisuen jaioterria 1933an, 1946an eta 1975ean




Iturria: «Anuarios Estadísticos del Magisterio» eta Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza. Egileak sortua.

6. grafiko  
Gipuzkoako andereñoen jaioterria 1933an, 1946an eta 1975ean

Haietatik 461 Estatuan jaio ziren (73 Burgosen, 45 Zamoran, 43 Leonen, 35 Errioxan, 33 Valladoliden eta beste 232ak Estatuko beste probintzia batzuetan). Euskal Herrian jaio zirenetatik 199 gipuzkoarrak ziren, 130 nafarrak, 34 arabarrak eta 38 bizkaitarrak, guztira 401 andereño.


1960 urtera iristen garenean arazo bat aurkitu genuen, urtekariek ematen zizkiguten datuak ez ziren uste bezain zehatzak eta irakasleen kopurua baino ez genezaken eman, hurrengo banaketarekin: alde batetik, 468 maisu ziren, 220 Euskal Herrian jaioak (122 Gipuzkoan, 61 Nafarroan, 23 Araban eta 14 Bizkaian) eta 248 Estatuan. Bestalde, 572 emakumek egin zuten lan probintziako geletan eta bere banaketa hauxe da: 269 euskaldunak (149 gipuzkoarrak, 74 nafarrak, 29 arabarrak eta 17 bizkaitarrak) eta 303 Estatutakoak.



*Iturria:* «Anuarios Estadísticos del Magisterio».

#### 7. grafikoa

#### Gipuzkoako maisuen jaioterria, 1960an



*Iturria:* «Anuarios Estadísticos del Magisterio».

#### 8. grafikoa

#### Gipuzkoako andereñoen jaioterria, 1960an

Aurreko atalean ikusi dugu maisuak desagertzeko joera gertatu zela, eta haien ordeaz emakumeak sartu zirela. Atal honetan beste fenomeno antzekoa ikusi dugu, alegia, irakasle euskaldunak pausoz pauso desagertzera jo zuten bitartean, haien lanpostuak Estatuko beste probintzietako irakasleek bete zituzten.

#### 4. ONDORIOAK

Nahiz eta gerra garaian Gipuzkoa oso probintzia zigortuta izan, bere ekonomia oso azkar berreskuratu zen, eta horren ondorioz etorkin asko heldu zen bertora, batez ere pertsona gazteak, familia ugariak sortuko zituztenak. Baina probintziak bi arazo izan zituen: batetik gero eta ikasle gehiago zeuden eskola adinean; bestetik, irakasleen kopuruak behera egin zuen hainbat arrazoiengatik, eta probintziako gelak betetzeko arazo larriak izan zituzten Hezkuntza agintari berriek.

Bestalde Gipuzkoako mutilek ez zuten nahi irakaskuntzan lanean hasaterik bi arrazoiengatik: «Mugimenduko Printzipioak» onartu behar zituztelako eta lanbidea oso gaizki ordainduta zegoelako, beste edozeinetan diru gehiago lortzen zutelako. Hartara, Irakaskuntza emakumeen eskuetan geratu zen, gizonezko gutxi geratu zen, eta gainera, emakumeek bezala, ez zuten ikasleen hizkuntza menperatzen. Batez ere herri txikienetan, hizkuntzaren arazoak ez zuten konponbiderik, ikasleek izugarritzko zigorrak pairatu zituzten eskolan beren hizkuntzan mintzatzeagatik.

Irakasleen egoerari zegokionez, penagarria zen. Agintzari asko jaso arren, bete gabe geratzen ziren, eta irakasleek, gosez ez hiltzeko, beste lan osagarriak bilatu behar izan zituzten; beraz, irakasleek ez zioten arreta handia egiten irakaskuntzari eta ikasleak berriro paganoak bihurtzen ziren, hots, alde batetik ez zuten irakaskuntza beren hizkuntzan jasotzen, eta gainera irakasleek ez zituzten ikasgaiak ondo prestatzen.

Laburbilduz, Gipuzkoako Lehen Hezkuntzak bi fenomeno bizi izan zituen Francoren garaian: irakaskuntzaren feminizazioa eta kanpoko irakasle askoren etorrera.

Jasotze-data: 2008/08/06

Onartze-data: 2009/06/24

#### *Abstract*

---

*This article aims to present the situation within the teaching body in the province of Gipuzkoa from the time when Franco came to power. To be able to carry out this research we first of all had to put the general situation from the end of the Civil War into context within*

*the province of Gipuzkoa and then we turned to the Teaching Statistics Annuals, documents which compile the different models for teaching staff in Primary Education also showing where they were born, to analyse the process of bringing more women and immigrants into Primary classrooms in this province. This also required a visit to the archives of the Teacher Training School and the Gipuzkoa Education Delegation.*

**Keywords:** *Teacher. Labour conditions. Language.*

---

*Este artículo pretende dar a conocer la situación que se originó dentro del cuerpo del Magisterio en la provincia de Gipuzkoa a partir de la llegada de Franco al poder. Para poder llevar a cabo esta investigación en un primer lugar hemos procedido a contextualizar de manera breve la situación general que se produce en el territorio guipuzcoano desde el mismo instante en que tiene lugar el levantamiento militar y a continuación hemos recurrido a los Anuarios Estadísticos del Magisterio, unos documentos en los que se recogían los diferentes modelos de profesorado de Enseñanza Primaria así como sus lugares de nacimiento, para analizar el proceso de feminización y de inmigración que va teniendo lugar en las aulas de Primaria en esta provincia. Para ello también ha sido necesaria la visita a los archivos de la Escuela de Formación del Profesorado así como los de la Delegación de Educación de Gipuzkoa.*

**Palabras Clave:** *Maestro-maestra. Modelos de profesorado. Condiciones laborales. Lengua.*

---

*L'objectif de cet article est de faire découvrir la situation d'origine du corps des instituteurs sur la province de Gipuzkoa à partir de l'arrivée de Franco au pouvoir. Pour pouvoir mener cette recherche, nous avons, dans un premier temps, procédé à la mise en contexte brève de la situation d'ensemble sur le territoire de Gipuzkoa à partir du soulèvement militaire. Par la suite, nous nous sommes penchés sur les Annuaire Statistiques du Corps d'Enseignants, des documents qui reprenaient les différents cursus des enseignants exerçant dans le primaire ainsi que leur lieu de naissance, afin d'analyser la féminisation et le processus d'immigration qui se sont déroulés dans les salles de classe du Primaire sur cette province. Pour cela il a également fallu aller visiter les archives du Centre de Formation des Enseignants ainsi que celles de la Délégation de l'Enseignement de Gipuzkoa.*

**Mots clé:** *Maitre-maitresse. Model d'enseignement. Conditions de travail. Langue.*

## BIBLIOGRAFIA

- Agirre Elustondo, J. A. (1969): *Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros. Informe GAUR*.
- Arrieta, L.; Barandiarán, M. (2003): *Diputación y Modernización: Gipuzkoa 1940-1975*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Basurko Motrico, F. (1989): «La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la Escuela Pública Vasca», *Revista Interuniversitaria de Historia de la Educación*, 8.
- García de Cortázar, F.; Montero, M. (1985): *Historia Contemporánea del País Vasco*. Donostia: Txertoa.
- Garmendia Larrañaga, J. (2004): *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los Ayuntamientos, 1900-1950*. Donostia: EHU.
- González Portilla, M (1998): «100 Años de Historia del País Vasco», *Cuadernos de Extensión Universitaria*. Leioa: EHU.
- Lasa, J. I. (1968): *Sobre la Enseñanza Primaria en el País Vasco*. Donostia. Añamendi.
- Morente Valero, F. (1997): *La Depuración del Magisterio Nacional, 1936-1943. La Escuela y el Estado Nuevo*. Valladolid: Ámbito.
- Ostolaza, M. (1996): *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo*. Donostia: Ibaeta.

## LEHEN MAILAKO ITURRIAK

- 1857ko irailaren 9ko Legea, Instrukzio Publikoari buruzkoa (*Ley de 9 de septiembre de 1857 sobre Instrucción Pública*).
- 1945ko uztailaren 17ko Legea, Lehen Hezkuntzari buruzkoa (*Ley de 17 de julio de 1945 sobre Educación Primaria*).
- 1965eko abenduaren 21eko legea, Lehen Hezkuntzaren Erreformari buruzkoa (*Ley de 21 de diciembre de 1965 sobre la Reforma de la Enseñanza Primaria*).
- 1970eko abuztuaren 4ko Legea, edo Hezkuntzaren Lege Orokorra eta Hezkuntzaren Erreforma Finantzatzekoa (*Ley de 4 de agosto de 1970 o Ley General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa*).
- 1950eko uztailaren 7ko Araudia, Irakasle eskolei buruzkoa (Reglamento de 7 de julio de 1950 sobre las Escuelas del Magisterio).
- 1947ko urriaren 24ko Dekretua, edo Maisutzaren Estatutua (Decreto de 24 de octubre de 1947 o Estatuto del Magisterio).
- Maisutzaren mailei buruzko foiletoak, kategoriak: Instrukzio Publiko eta Arte Ederren Ministerioarenak (1933), eta Hezkuntza Nazionalaren Ministerioarenak (1946 eta 1960)
- SIADeco txostena (1979).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Aktak, 1936-1975.
- Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzako alta eta baje artxibategia, 1975.